



3.


Buruari eragin. Bi aste barru txapelketa garrantzitsua dute, eta entrenamendu gogorra egin dute Martinek eta Pellok. **Nork jaso du kilo gehien?**




4 aldiz



9 aldiz



12 aldiz




6 aldiz




11 aldiz



2 aldiz




8 aldiz



13 aldiz

Erantzunak: 2- Zeppelina, autobusa, sidekarrak eta helikopteroa. **3-** 4,575 kilo jaso ditu Martinek, eta 4,525, Pellok. Gutzigatik, baina Martinek irabazi du, beraz.

AZOKA




'Elmer elurretan'

Hotz egiten duela-eta kexuka entzun ditu elefanteak Elmerrek. Hala bada, osteratxo bat egitera gonbidatu ditu lagunak. Eta nora eraman dituen? Eurak bizi diren lekua baino hotzagoa den beste toki batera. Haren helburua da lagunei erakustea negua ere oso dibertigarria izan daitekeela. Lagunak konbentzituko al

ditu? Edo hotzez itzuliko dira euren herrialdera?

Egilea: **David McKee**. Argitaletxea: **Erein**



'Nur eta Herensugearen tenplua'

Nur Txinara joan da bizitzera, eta han lagun berriak egin ditu. Haietako baten urteak ospatzeko, Herensugearen Tenplura joan dira denak. Lagunetako bat desagertu egingo da, eta, haren bila ari direla, ixtear dagoen atrakzio baten barruan geratuko dira preso: Herensugearen Tenpluan. Handik ateratzeko, hainbat proba gainditu beharko dituzte. Toti Martinez de Lezea idazlearen ipuinean oinarritu da Lotura Films ekoizpen etxea filma egiteko.


Egilea: **Lotura Films**. Argitaletxea: **Elkar**



'Maletan zer ote? eta Musuen etxea'

Zer gordetzen ote dute, ba, animaliek maletan? Zabaldur orrialdeak, eta ireki animalien maletak. Maletak altxor kutxak direla ohartuko zara *Maletan zer ote?* liburuan. *Musuen etxea* liburuan, aldiz, hartatzkoa musu bila ari da etxe osoan zehar, baina bakar batek ere ez du asetzen: arrainenak irristakorak dira, krokodiloaren musuek sastatu egiten dute... Lagunduko al diozu onenak aurkitzen? Ireki ateak, zabaldur errezelak, altxatu al fonbrak... eta ezagutu etxeko biztanle guztiak!

Egilea: **Claudia Bielinsky**. Argitaletxea: **Ibaizabal**



'Astonauta tronpeta flauta'

Astonauta astoaren eta Nerearen eta Enekoren abenturak DVD batean bildu ditu Ene Kantak. Orain arte taula gainean eskainitako ikuskizunaz gain, abesti eta koreografia gehiago eskainiko dituzte, orain arte zuzenean dantzatu ez dituztenak! Espaziora bidaiatzeko prest al zaude? Presta zaitezte dantzatzeko, kantatzeko eta dibertitzeko.

Egilea: **Ene Kantak**. Argitaletxea: **Ene Kantak**